| 2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA | LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008 |
|---|---|

**Saila:** 80 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Egitaraua:** 05 ADINGABEA ETA FAMILIA

**Departamento:** 80 INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**Programa:** 05 MENOR Y FAMILIA

| SAILAREN MEMORIA | MEMORIA DEL DEPARTAMENTO |
|---|---|

## I. MEMORIA

Adingabearen eta Familiaren Arloak familiari, adingabeari eta komunitateari zuzendutako zerbitzu eta programak kudeatu ditu, Haurtzaroaren Gidan ezarritako ereduarekin bat etorrita, eta ahalegina eginez adingabeak beren gizarte eta familia ingurunean gera daitezen.

Lehentasun berezia eman zaie babesgabetasun egoera larrian dauden familiekin esku hartzeko programa espezializatuaren bidezko prebentzio zerbitzuei, eta, holakorik ezean, adingabeari hautazko etxea eskaini zaio, haren ongizatea bermatzeko ezinbestekoa izan denean, egoitza harrerako, familia harrerako edota adopzioko programen bidez; era berean, beste herrialde batzuetako haurrak adoptatzeko prest dauden familien balorazioa egin da eta lagundu zaie.

Arloaren Harrera eta Premialdietako Zentroetan dauden adingabeei arreta ematen jarraitu zaie. Alde horretatik, erakunde hauekin sinatutako hitzarmenak luzatu dira: Karitateko Alabak (Hazaldi) eta San Frantzisko Saleskoaren lagunartea (Bosco Etxea). Halaber, Arloak Erredentore Santuaren Oblatuekin sinatuta zuen hitzarmenaren amaiera iragarri eta bertan behera utzi ondoren, Beti Gizartean Fundazioarekin lankidetza hitzarmena sinatu zuen, babesgabetasun egoera larrian egonik, bakarrik dauden emakume haurdunei edota 6 urtetik beherako seme-alabak dituztenei laguntzeko programa kudeatze aldera.

Zuzeneko kudeaketakoa den Geroa Etxea kudeatu da, eta Sansoheta gizarte eta hezkuntza etxeko jarduera programa gauzatzeko kontratua lehiaketa publiko baten bidez adjudikatu da. Ixuri elkartea izan da adjudikazioduna. Era berean, Kolore Guztiak Elkartearekin lankidetza hitzarmena sinatu da, Aukera eta Orhy emantzipazio etxebizitzak kudeatzeko; guztira zentro horietan 12 plaza daude.

## I. MEMORIA

El Área del Menor y la Familia ha gestionado los servicios y programas dirigidos a la familia, al menor y a la comunidad, de acuerdo al modelo establecido en la Guía de Infancia, tratando de que las personas menores de edad permanezcan en su medio socio-familiar.

Se ha dado especial prioridad a los servicios de prevención a través del programa especializado de intervención familiar en situaciones de desprotección grave y, en su defecto, ofreciendo al menor un hogar alternativo cuando ello ha resultado imprescindible para garantizar el bienestar, a través de los programas de acogimiento residencial, de acogimiento familiar y/o adopción, realizando igualmente la valoración y acompañamiento de aquellas familias que han manifestado su disponibilidad a la adopción de niños y niñas de otros países.

Se ha seguido prestando atención a los menores acogidos en los Centros de Acogida y Urgencias del Área, suscribiendo las prórrogas de los convenios con las Hijas de la Caridad (Hazaldi) y con la sociedad Salesiana San Francisco de Sales (Bosco Etxea). Así mismo, tras la denuncia y cese del convenio con las Oblatas del Santísimo Redentor, se procedió a firmar convenio de colaboración con la Fundación Beti Gizartean para la gestión del programa para la atención a mujeres solas en estado de gestación y con hijos menores de 6 años en situación de desprotección grave, programa ubicado en el Hogar Castillo de Portilla, dependiente del I.F.B.S.

Se ha gestionado el Hogar Geroa, de gestión directa y se ha procedido a la adjudicación mediante concurso público del contrato para el desarrollo del Progama de Actividades del Hogar Socio-Educativo Sansoheta, habiendo recaído la adjudicación en la Asociación Ixuri. Así mismo, se ha procedido a la suscripción del convenio de colaboración con la Asociación Intercultural Kolore Guztiak para la gestión de los

Lagunduta ez dauden adingabe atzerritarren laguntza programarekin jarraitu da, ugaldu direlako adingabeko horiei laguntzeko dauden giza baliabideak, eta talde horrentzako zentro berria birgaitzeko prozesua egin da. Ildo horretatik, zentroaren diseinuan parte hartu da. Zabaltzen zentroan dauden plazak gehitu dira (30). Carlos Abaitua eta Xabier emantzipazio etxebizitzetako plaza kopuruari eutsi zaio (12 plaza) eta Beneditarrek eta Jesuitek utzitako lokaletan behin-behineko bi unitate sortu dira; guztira horietan 32 plaza daude.

Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea betez, bilera batzuk egin dira, hiru lurralde historikoetan, haurren babesgabetasun egoerak baloratzeko tresna bera edukitze aldera.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

**1. Adingabearen eta Familiaren Arloko programak eta zerbitzuak behar bezala gauzatzen eta ematen direla bermatzea.**

- Haur, gazte eta familientzako zentroen eta zerbitzuen programazioa antolatu da, eta Balorazio Batzordeak 34 bilera egin ditu. Guztira, 600 kasu baloratu dira.
- Arloko talde teknikoa kudeatu da Haurtzaroaren Gidan ezarritako ereduari jarraiki, eta ondorio horretarako behar diren baliabideak jarri dira abian.
- Koordinazioko bilera teknikoak egin dira zentro edo zerbitzuetako arduradunekin eta profesionalekin.
- Etengabeko jarraipena egin zaio aurrekontuaren gauzatzeari; eta, horretarako, informazioak aztertu eta aurrekontuko aldizkako kontrolak egin dira.

**2. Haurren eta nerabeen gizarte ongizateaz**

pisos de emancipación Aukera y Orhy con un total de 12 plazas.

Se ha dado continuidad al Programa dirigido a la atención de menores extranjeros no acompañados, ampliando los recursos humanos para su atención y se ha seguido el proceso de rehabilitación del nuevo centro para este colectivo, participando en el diseño del mismo. Se han ampliado las plazas existentes en el Centro Zabaltzen (30). Se han mantenido las plazas en los hogares de emancipación Carlos Abaitua y Xabier (12 plazas) y se han creado dos unidades provisionales en locales cedidos por la Comunidad Benedictina y los PP Jesuitas con un total de 32 plazas.

Para el desarrollo de la Ley 3/2.005 de 18 de Febrero, de Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia, se han celebrado reuniones a fin de elaborar un instrumento de valoración de las situaciones de Desprotección Infantil común a los tres territorios históricos.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

**1. Garantizar la adecuada ejecución de los programas y servicios del Área del Menor y la Familia.**

- Se ha efectuado la programación de los centros y servicios de Infancia, Adolescencia y Familia y se han celebrado 34 reuniones de la Comisión de Valoración, llegando a valorar un total de 600 casos.
- Se ha gestionado el equipo técnico del área de acuerdo al modelo establecido en la Guía de Infancia, poniendo en marcha los recursos al objeto.
- Se han realizado las correspondientes reuniones técnicas de coordinación con responsables y profesionales de los diferentes centros o servicios.
- Se ha realizado un seguimiento continuado de la ejecución presupuestaria basado en el estudio de las correspondientes informaciones y controles periódicos presupuestarios.

**2. Atención y promoción del bienestar social de la**

**arduratu eta hura sustatzea, batez ere gizarte eta familia inguruneak eta ingurune komunitarioak gizarte arrisku handia duenean.**

- Eusko Jaurlaritzarekin bilerak egin dira Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea garatzeko.
- Arloa Eusko Jaurlaritzarekin eta Kataluniako Ramón Lluch Unibertsitatearekin lankidetzan aritu da, Lagunduta ez dauden Atzerritar Adingabeei buruzko azterlana egiteko.
- Arloa Ararteko Erakundearekin lankidetzan aritu da, portaera arazoak dituzten adingabeentzako zentroei buruzko azterlana egiteko.
- Landa zonarako familia babeseko programak ebaluatzeari ekin zaio, Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzaren laguntzaz, baita Hazaldi eta Bosco Etxea izeneko harrera zentroak ebaluatzeari ere, Jardunbide Onen gaineko Gidaliburuak egiteko.

3. **Familiaren ongizatea sustatzea, orientazioa, laguntza, aholku psikologikoak eta pedagogikoak emanez, eta jarraipen programak eginez adingabea familiara hobeto egokitu dadin.**

- Haurren eta gazteen aurkako tratu txarren eta haien babesgabetasunaren kasuen jakinarazpenek agertutako arazoei aurre egin zaie, eta, hartara, zabarkeria, tratu txar fisikoa eta emozionala, sexu abusua eta arreta emateko ezintasuna izan dela salatu duten 120 jakinarazpen aztertu dira, eta, guztira, 152 adingaberi eman zaie laguntza.
- Landa inguruneko gizarte zerbitzuei laguntza teknikoa eman zaie, babesgabetasun arin eta moderatuko kasuetan balorazio eta jarraipeneko zerbitzuak emanez; programaren barruan 37 familia eta 62 adingaberi arreta eman zaie, eta guztira urtean 5.117 orduz eman da arreta.
- Familia ingurunean gizarte eta hezkuntzarako laguntza emateko programa gauzatu da. 2008.

**Infancia y de la Adolescencia, especialmente en los casos en que el entorno socio-familiar y comunitario presente un alto riesgo social.**

- Se han mantenido reuniones con el Gobierno Vasco para el desarrollo reglamentario de la Ley 3/2.005 de 18 de Febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.
- Se ha colaborado con el Gobierno Vasco y con la Universidad Ramón Lluch de Cataluña, en la realización del estudio sobre Menores Extranjeros no Acompañados.
- Se ha colaborado con el Defensor del Pueblo en la realización de un estudio sobre Centros para Menores con Problemas Conductuales.
- Se ha procedido, en colaboración con la Secretaría de Servicios Sociales, a la evaluación de los programas de preservación familiar dirigidos a la zona rural, así como a la evaluación de los Centros de Acogida Hazaldi y Bosco Etxea, en orden a la elaboración de Manuales de Buena Práctica.

3. **Promocionar el bienestar de la familia, mediante programas de orientación, asesoramiento, apoyo psicopedagógico y seguimiento, a fin de favorecer el proceso de adaptación menor/familia.**

- Se ha abordado la problemática presentada en cuanto a notificaciones de situaciones de maltrato y desprotección a la infancia y la adolescencia, recibiéndose 120 notificaciones que afectaban a 152 menores, motivadas por situaciones de negligencia, maltrato físico/emocional, abuso sexual, imposibilidad de atención ...
- Se ha apoyado técnicamente a los servicios sociales del medio rural, mediante la prestación de servicios de valoración y seguimiento de casos de menores en situación de desprotección leve y moderada atendiendo, en el marco del programa, a 37 familias y 62 menores, prestando un total de 5.117 horas anuales de atención.
- Se ha desarrollado el programa de apoyo socio-educativo en el ámbito familiar. A lo largo del

urtean, babesgabetasun larriko egoeran dauden 253 adingaberen jarraipena egin da (guztira, 178 familiari). Horietatik 117 familiarengandik banatu gabe egon dira eta 136, berriz, antzeko egoeran baina familiarengandik banatuta.

- Familiaren ongizatea bultzatu da, laguntza psikologikoko, terapeutikoko eta pedagogikoko zerbitzuen bitartez. 100 kasu arretako sare pribatura bideratu dira, beren beharrizanetarako egokiak diren esku hartze psikologikoko programak jasotzeko.
- Emakume haurdunen zentroa kudeatzeko lankidetza hitzarmenaren jarraipena egin da; urtean zehar zentroan guztira 6 emakumeri eta 2 adingaberi eman zaie laguntza.
- Gao Lacho Drom ijito elkartearekin sinatutako lankidetza hitzarmena luzatu da, familietan esku hartzeko programa espezializatua egiten laguntzeko, babesik gabeko egoera oso larrian dauden seme-alabak dituzten ijitoen familientzat. Guztira 24 adingaberi egin zaie arreta.

4. **Arloaren harrera zentroetako eta etxeetako jarduerak mantentzea, eta besteren zentroetan egiten diren egoitza zerbitzuak gainbegiratzea.**

- Ondoko hitzarmenak luzatu dira harrera eta premia programak gauzatzeko:
  - Karitateko Alabekin sinatutako hitzarmenaren luzapena (Hazaldi).
  - San Frantzisko Saleskoaren Elkartearekin (salestarrak) sinatutako hitzarmenaren luzapena (Bosco Etxea)
- Geroa Etxea kudeatu da, eta zentroan urtean zehar 15 adingaberi eman zaie laguntza.
- Halaber, Nuevo Futuro eta Dianova Elkartearekin itundutako hiru etxeen jarraipena eta ikuskapena egin da.
- Izan Elkartearekin Sansoheta gizarte eta

año 2.008, se ha efectuado el seguimiento de 253 menores de 178 familias en situaciones de desprotección grave, 117 sin separación familiar y de otros 136 menores, en situación similar, pero con separación familiar.

- Se ha promocionado el bienestar de la familiar mediante servicios de apoyo psicológico, terapéutico y pedagógico. Se han derivado 100 casos a la red privada de atención para recibir programas de intervención psicológica adecuados a sus necesidades.
- Se ha procedido a realizar el seguimiento del Convenio de Colaboración para la gestión del Centro para Mujeres Gestantes, atendiéndose en el centro durante al año a un total de 6 mujeres y a 2 menores.
- Se ha prorrogado el Convenio de Colaboración con la Asociación Gitana Gao Lacho Drom para colaborar en la realización de un programa especializado de intervención familiar dirigido a familias gitanas donde se presenten situaciones de desprotección infantil de gravedad elevada , programa en el que se han atendido a un total de 24 menores.

4. **Mantenimiento de actividades desarrolladas en los Centros de Acogidas y Hogares del Área, así como efectuar la supervisión de servicios residenciales prestados en centros no propios.**

- Para el desarrollo de los programas de acogida y urgencia, se han prorrogado los siguientes convenios:
  - Prórroga del convenio con Hijas de la Caridad (Hazaldi)
  - Prórroga del convenio con Sociedad Salesiana San Francisco de Sales (Bosco Etxea)
- Se ha gestionado el Hogar Geroa atendiendo en el centro un total de 15 menores a lo largo del año.
- Así mismo, se ha realizado el seguimiento y supervisión de los tres hogares convenidos con la Asociación Nuevo Futuro.
- Se ha efectuado el seguimiento del contrato de

hezkuntzako etxeko jarduera programa garatze aldera egin zen zerbitzuen kontratuaren jarraipena egin da.

- Jarraipena egin zaie, kalera irten ondoren, egoitzako nahiz familiako harrera ondoko jarraipen programan parte hartu nahi izan duten adingabeei.
- Jarraipena eman zaio adingabe atzerritarren laguntza programari. Ekainean Zabaltzen zentroko plazak 30eraino gehitu ziren, instalazioak zaharberritu ondoren, eta harrez geroztik zentroaren kudeaketa Ixuri Elkartearekin hitzartuta dago. Era berean, elkarte horrekin ere bi behin-behineko harrera unitate berri hitzartu ziren (8 eta 24 plazakoak) Jesús Obrero ikastetxean eta Estibalizen. Era berean, Carlos Abaitua eta Xabier emantzipazio etxebizitzen kudeaketarekin jarraitu da, salestarrekin sinatutako hitzarmenaren bitartez.
- Honako programa hauek egiteko hitzarmenak luzatu dira:
  - Dianova elkartearekin egindako hitzarmenaren luzapena (3 plaza Zandueta Komunitate Terapeutikoan, Nafarroan, eta beste bi erakunde horren beste zentro batzuetan).
  - Laudioko adingabeen eguneko zentroaren jarraipena eta finantzaketa egin dira.
  - Gasteizko Osabide Hezkuntzarako Partzuergoarekin sinatutako lankidetza hitzarmena luzatu da, nerabeak trebatzeko eta lanerako gaitzeko ekintzak egiteko.
  - Besarkada elkartearekin sinatutako lankidetza hitzarmena luzatu da, harrera familiak prestatzen laguntzeko.
  - Gurutze Gorriarekin sinatutako hitzarmena luzatu da, lagunduta ez dauden atzerritar adingabeen jarduerak egiteko.
  - Gao Lacho Drom elkartearekin sinatutako lankidetza hitzarmena luzatu da, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak

Servicio con la Asociación Izan para el desarrollo del Programa de Actividades del Hogar Socio-Educativo Sansoheta.

- Se ha efectuado el seguimiento de los y las menores que, tras su salida, desean acogerse al programa de seguimiento postacogimiento, residencial o familiar.
- Se ha dado continuidad al Programa dirigido a la atención de menores extranjeros. En el mes de junio se amplian las plazas del centro Zabaltzen a 30, previa rehabilitación de las instalaciones, conveniando su gestión (a partir de dicho momento) con la Asociación Ixuri, con la cual se convenian también dos nuevas unidades de acogida provisional (de 8 y 24 plazas) en Jesús Obrero y en Estibalitz. Así mismo, se ha continuado con la gestión de los pisos de emancipación Carlos Abaitua y Xabier, mediante convenio con la sociedad salesiana.
- Se han prorrogado diferentes convenios para la realización de los siguientes programas:
  - Prórroga del convenio con la Asociación Dianova (3 plazas en la C.T. Zandueta de Navarra y 2 más en otros centros de dicha entidad)
  - Se ha procedido al seguimiento y financiación del Centro de Día de Menores de Llodio.
  - Prórroga del convenio de colaboración con el Consorcio para la Educación Compensatoria de Vitoria-Gasteiz, para el desarrollo de acciones de formación y capacitación laboral para adolescentes.
  - Prórroga del convenio de colaboración con la Asociación Besarka para apoyo al acogimiento familiar la gestión de un Centro de Día para Menores.
  - Prórroga con Cruz Roja para actividades de Menores Extranjeros No Acompañados.
  - Prórroga convenio de colaboración con la Asociación Gao Lacho Drom para apoyo a familias gitanas con menores en situación de

dituzten familiei laguntzeko.

- Beti Gizartean Fundazioarekin lankidetza hitzarmena sinatu da, Castillo de Portilla zentroko programa gauzatzeko (otsailaz geroztik).
- Kolore Guztiak Elkartearekin lankidetza hitzarmena sinatu da, 2 emantzipazio etxebizitza kudeatzeko, bat otsailaz geroztik eta bestea abuztuaz geroztik.

• Hurrengo kontratu hauen jarraipena egin da:

- Landa zonan babesik gabeko egoerak baloratzeko eta familia babesteko zerbitzua (Hezilan)
- Babesik gabeko egoera larriak eta sexu abusuko egoerak baloratzeko zerbitzua luzatu da (Hezilan)
- Bisiten Unitatearen zerbitzua luzatu da (Amapase)
- Adopzioko eta familia harrerako eskabideak aztertzeko eta adopzioa zein harrera prestatzeko tailerrak eta jarraipena egiteko zerbitzua luzatu da (Izan)

**5. Adingabeak adoptatzeko eta familian hartzeko programak garatzea, familia batean bizi daitezen edo zaintzapean egon daitezen.**

• Estatuko eta nazioarteko adopzio programak garatu dira. Lehenengorako 14 eskabide jaso dira eta bigarrenerako, berriz, 53. 2008. urtean adingabe bat entregatu zen estatuko adopzioaren barruan, eta atzerriko 48 adingabe adoptatu ziren.

• Luzatu dira adopzio eskatzaileak prestatzeko eta balioespen psikosoziala egiteko zerbitzuak eta adopzio ondoko jarraipen eta aholku zerbitzuak, eta harrera familien balioespen psikosoziala egiteko kontratuaren jarraipena egin da.

• Oporrak edo osasun arazoak direla eta, adingabeko atzerritarrei aldi baterako egiten

desprotección.

- Se ha firmado convenio de colaboración con la Fundación Beti Gizartean para el desarrollo del programa del Centro Castillo de Portilla (desde febrero)
- Se ha firmado convenio de colaboración con la Asociación Intercultural Kolore Guztiak para la gestión de 2 pisos de emancipación, desde febrero y agosto respectivamente.

• Se ha efectuado el seguimiento de los siguientes contratos:

- Prórroga del Servicio de valoración de desprotección y preservación familiar de la zona rural (Hezilan)
- Prórroga valoración situaciones de desprotección grave y abuso sexual (Hezilan)
- Prórroga servicio unidad de visitas (Amapase)
- Prórroga valoración solicitudes de adopción y acogimiento familiar así como talleres de preparación y seguimiento (Izan)

**5. Desarrollar los programas de adopción y acogimiento familiar en los casos de menores tributarios de los mismos, respectivamente, dotándoles de un hogar familiar y/o otorgando su guarda.**

• Se han desarrollado los programas de adopción nacional e internacional, habiéndose recibido 14 y 53 solicitudes respectivamente. Durante el año 2008 se entregó un menor en adopción nacional, habiendo llegado 48 menores adoptados del extranjero.

• Se ha procedido a prorrogar los servicios de preparación y valoración psicosocial de adopción y seguimiento y orientación postadoptivos y se ha efectuado el seguimiento del contrato de valoración psicosocial de familias acogedoras.

• Se ha efectuado la valoración de los expedientes relativos a la acogida temporal de menores

zaien harrerari buruzko espedienteak balioetsi dira. Programaren esparruan, 315 adingaberi eman zaie laguntza.

- Bisiten Unitatearen jarraipena egin da. Urtean 70 adingaberi eman zaie laguntza.
- Comillasko Unibertsitatearen zerbitzuak kontratatu dira, nazioarteko adopzioko eskatzaileentzako gidaliburua prestatzeko.
- Familia harreragatik ematen diren prestazioak berrikusi eta igo dira.



extranjeros por motivos vacacionales y de salud, acogíendo en el marco del programa a 315 menores.

- Se ha efectuado el seguimiento de la Unidad de Visitas, atendiendo a lo largo del año a 70 menores.
- Se ha procedido a la contratación de los servicios de la Universidad de Comillas para la elaboración de una Guía para solicitantes de adopción internacional.
- Se ha procedido a efectuar la revisión y subida de las prestaciones por acogimiento familiar.